

Ispiritu Kantu

Kantu aperitifa



1. Mendian gora

Mendian gora haritza
ahuntzak haitzean dabilta
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.

**Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza. (Bis)**

Euskal Herriko tristura
soineko beltzen joskura
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.

**Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
biz naiz gustura. (Bis)**

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari kolpeka.

**Argitu ezak kopeta
penak heuretzat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortxe zegok eta. (Bis)**

Mundua ez da beti jai
inoiz tristea ere bai
bainan ba dira mila motibo
kantatzeko alai.

**Bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo lasai. (Bis)**

2. Agure zaharra

Agure zahar batek zion, bere etxe ondoan,
goizean goiz, lantegira irtetzen nintzanean :
Ez al dek, gazte, ikusten, gure hesola zein dan !
Desegiten ez badugu, bertan galduko gera.

**Baina, guztiok batera, saiatu hura botatzera!
Usteltzen hasia dago ta, laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan !
Ikusiko dek nola nola laister eroriko dan.**

Bainan denbora badoa, nekea zaigu hasi.
Eskuak apurtu zaizkit eta indarrak utzi.
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik
Berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin :

**Baina, guztiok batera, saiatu hura botatzera!
Usteltzen hasia dago ta, laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan !
Ikusiko dek nola nola laister eroriko dan.**

Agure zaharra falta da bere etxe ondotik
haize txar batek hartuta eraman du hemendik.
Haur batzu ikusten ditut, eta inguraturik,
agure zaharraren kanta nahi diet erakutsi :

**Baina, guztiok batera, saiatu hura botatzera!
Usteltzen hasia dago ta, laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan !
Ikusiko dek nola nola laister eroriko dan.**

3. Oi kanta berri

Oi kanta berri ixilik nago
Orai duela aspaldi
Zuretzat nuen kar bero hura
Suntsitu ez da dirudi
Beste lanetan iragan ditut
Hainitz egun ta gaualdi
Bainan oraino ez dut ukatu
Euskara ez ta Euskadi

Oi kanta berri bihotzetikan
Ezpainetarat jalia
Euskal airean bidaltzen zaitut
Zu nere mezularia
Jendeen artean izatu banaiz
Beresle samurlaria
Izan zaite zu ene partetik
Bakezale den txoria

Oi kanta berri izan zaite zu
Anaiarteko zubia
Batasunetik libertatera
Gidatzen duen bidia
Kartzelan den abertzaleari
Emozu doi bat argia
Etsiturikan den bihotzari
Esperantza ur bizia

Oi kanta berri gure herriak
Behar du bide ta zubi
Etxeetan ere baitezpadako
Argiarekin ur garbi
Horiek denak ez dire aski
Bizi dadilen Euskadi
Hainbat oraino beharko ditu
Kanta bat eta kanta bi. (Bis)

4. Maitiak galdegin zautan

Maitiak galdegin zautan
pollit nintzanez (berriz)
Pollit, pollit nintzela bainan
Larrua beltz, larrua beltz !

Maitiak galdegin zautan
premu nintzanez (berriz)
Premu, premu nintzela bainan
Etxerik ez, etxerik ez !

Maitiak galdegin zautan
moltsa banuenez (berriz)
Moltsa, moltsa banuela bainan
Dirurik ez, dirurik ez !

Maitiak galdegin zautan
Lanean nakienez (berriz)
Lanean, lanean, nakiela bainan
Gogorik ez, gogorik ez !

Gaixoa hil behar dugu
gu biek gosez (berriz)
Gosez, gosez ez naski bainan,
Elgar maitez, elgar maitez !

5. Ala kinkiri, ala kunkuru

Erran dut, erranen eta errango
Ez naiz ixilik egongo :
Plaza huntako dama gazteak
Ez dira monja sartuko.
**Ala kinkiri, ala kunkuru,
Ala kinkiri kunkuru kanta,
Ala kinkiri kunkuru kanta,
Gu bezalakoak dira hola !**

Erran dut, erranen eta errango
Ez naiz ixilik egongo :
Plaza huntako gizon gazteak
Ez dira fraile sartuko.
**Ala kinkiri, ala kunkuru,
Ala kinkiri kunkuru kanta,
Ala kinkiri kunkuru kanta,
Gu bezalakoak dira hola !**

Erran dut, erranen eta errango
Ez naiz ixilik egongo :
Plaza huntako gazte guziak
Ezkontzan dira sartuko...
**Ala kinkiri, ala kunkuru,
Ala kinkiri kunkura kanta,
Ala kinkiri kunkura kanta,
Gu bezalakoak dira hola !**

6. Maria Solt ta Kastero

Maria Solt ta Kastero
bi amoros zahar bero. (bis)
Hirurogei-hamarna urtetan
hartü die amorio
Kastero jelostü gero Maria Solt
ezari kanpo.

Maria Solta dua nigarrez
izorra dela beldürrez. (bis)
Barnets-Bordako anderiak
kontsolatü düenez
emazte zaharrik oküpü agitzen
eztela ez.

Maria Soltek arrapostü
Santa Elisabet badüzü (bis)
Saintü zahar bateganik oküpü
agitü düzü
Kastero ere bada saintü, hala
nizan beldür nüzü.

Kastero ez düzü saintü
sobera bür(ü) haüti düzü. (bis)
Elizalat juan eta taharnan
egoiten düzü
Kastero denagatik saintü
Maria Solt antzü zira zü.

7. Gora ta gora beti

**Gora ta gora beti,
bai gora Lapurdi!
Euskarak bizi gaitu
eta bizi bedi.
(berriz)**

Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi beti dago apala,
aldrebesturik dago mundu zitala
Konformatzen ez bagara ze pekatu mortala!

Gora ta gora beti...

Gurea ez da bizi-modu normala,
lurra lantzeko haitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen erreala.
Benetan da miserable euskaldunon jornala.

Gora ta gora beti...

Munduan ezin bizi diteke hala,
merkatuetan dena gora doala,
etxera eta zopa guztiz argala,
kriseilluen olioia ez da postre formala.

Gora ta gora beti...

Obrero eta nekazari leiala,
zuen ez da errenta liberala.
Diru zikinak putre motzak bezala
botatzen dizu gainera hortxe bere itzala.

Gora ta gora beti...

Jabeek dute kontzientzi zabala,
kaskatu dute gure lurren azala,
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;
burruka garbian dago hori da printzipala.

Gora ta gora beti...

8. Ituringo arotza

Ituringo arotza, Erramun Joakin,
asarre omen zaude zeren degun jakin.
Santuek ez laitekez fiatu zurekin:
San Kristobal urtuta joaliak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:
Hurtu behar dinagu; ekarran Santu hori.
Gizona, norat zoaz? Bekatu da hori.
Etzionagu erranen sekulan nihori.

Ituringo garaile Ramuntxo Joakin
asarre omen zira zeren dudan jakin.
Konfesa zaite ongi erretorarekin:
ez dute zer fidatu Santuek zurekin.

Kobrezko Santurikan inon bazarete,
egoten al zarete emendik aparte;
baldin arotz oriek jakiten badute,
gariak egiteko urtuko zaituzte.

9. Baratze bat

Hau da egün eijerra
mila txoriek kanta
tziauri ene erregiña
besoak zuri ditizüt para.

**Baratze bat nahi deizüt egin
Amets sekretüenekilan
Liliak egün jauntzi eijerrenetan
Mila kolorez dantzan bihotzetan.**

Gaü beltz ta sakonetik
helkitzen naiz hoztürik
Bihotza hain tristerik
zütaz hainen berantetsitürik.

Baratze bat...

Karrosa bat hor dügü
Kanpoan gure aidü(r)ü
Ez gal abo(r)o denbora
Hiskor beitago amodioa

Baratze bat...

Maitarzun berriari
ilargiak dü argi
emanen deikü aski
guk elgar maita dezagun beti.

Baratze bat...

10. Kontrapas

Garaziko herria
Benedika dadila **(Bis)**
Euskarari eman dio
Behar zuen tornuia. **(Bis)**
Euskara, Euskara,
Jalgi hadi plazara. **(Bis)**

Bertze jendek uste zuten
Ezin izkriba zaiteien
Orai dute porogatu
Engañatu zirela.
Euskara, Euskara,
Jalgi hadi dantzara.

Bertzeak orok izan dira
Beren goihen gradora
Orai hura iganen da
Bertze ororen gainera.
Euskara, Euskara,
Jalgi hadi mundura.

Orai daño egon bahiz
Inprimitu bagerik
Hi engoitik eabiliren
Mundu guztietarik.
Euskara, Euskara,
Jalgi hadi plazara.
Euskara, Euskara,
Jalgi hadi dantzara.
Euskara, Euskara,
Jalgi hadi mundura.

11. Amak ezkondu ninduen

Amak ezkondu ninduen
hamabost urtekin (Bis),
senarrak bazituen
larogei berakin,
eta ni, neskatila gaztea,
agure zaharrakin (Bis).

Ama, zertarako det nik
agure zahar hori? (Bis)
hartu ta leihotikan
jaurti behar dut nik,
ai ene! ene leihotikan
jaurti behar dut nik.

Neska, hago isilikan,
aberatsa dun hori, (Bis)
pazientziz pasa itzan
urte bat edo bi,
hori hilez geroztikan
biziko haiz ongi. (Bis)

Deabruak daramala
interesatua, (Bis)
hau baino nahiago dut
adin berekoa
ai ene! hogei bat urteko
gazte loratua. (Bis)

12. Haize hegoa

Haize hegoa gau epela
ilargiaren argi
mutxurdiñak leihoetan
teilatuan katu bi
bide ertzean zenbait kanta
gau erdiz arnoari
Hargaineko sorgin zaharrak
keiñuka ilargiari.
(Dena berriz)

13. Katuen testamentua

Hil da, hil da gure katue,
egin dau, egin dau testamentue: (Berriz)

Amumantzako, amumantzako
hainkak eta burue,

Aittittentzako, aittittentzako
abarkak e(g)iteko narrua.

Mantxonintzako, Mantxonintzako
tripa-barrue,

Horixe dala, horixe dala
katuaren testamentue.
(Dena berriz)

14. Nigarra begian

Sumatuz euskaldunak

Ospetsu nahian

Guretik deus ez duen

Hizkuntza mihian,

Sofritzen egoiten naiz

Horien erdian

Gutaz ahalgetuta

Nigarrra begian. (Bis)

Nehoiz etzeraukula

Nik ez dut etsiko

Gure kontzientzia

Atzartzen hasiko,

Egungo balentriak

Ez baitu betiko

Odolaren mintzoa

Isilaraziko. (Bis)

Oi entzule maitea

Otoi barkamendu

Ez badut bozkarioz

Kantaldi hau ondu!

Jostetako gogoa

Dautate kendu

Aunitz maite duenak

Aunitz sofritzen du. (Bis)

15. Itziarren semea

Itziarren semea: hori duk mutila!
nihor salatu baino nahiago du hila
harro egon liteke Maji neskatala,
espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatala, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

- Haurra zer egin haute holan egertzeko?
 - Ama, jo egin naute mintza arazteko
 - Izenik eman al duk? Esan zak egia!
 - Ez ama, ez dut eman! Jali naiz garbia!
 - Jali haiz garbia?
 - Bai ama, egia!
- Ta amak eskeini zion klabelin gorria.

Itziarren semea: hori duk mutila!
nihor salatu baino nahiago du hila
harro egon litake Maji neskatala,
espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatala, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

Zazpi gizon nituen joka inguruan
Makilaz hartu naute ostikoz lurrean.
Bainan nik ez dut eman
lagunen izenik!
ta hantxe galditu dira
fitsik jakin barik!

Lau aldiz sartu naute urean burua
zangotik euki naute zintzilikatua
bainan nik ez dut eman lagunen izenik,
Ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!
Zangotik zintzilik, ni beti ixilik!
Ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!

Itziarren semea: hori duk mutila!
nihor salatu baino nahiago du hila
harro egon litake Maji neskatala,
espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatala, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

Izerdia ta odola burutik behera
ezpainak urratu ta azazkalak atera
Bainan nik ez dut eman lagunen izenik,
ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!
odolez beterik, ni beti ixilik!
Ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!

Itziarren semea: hori duk mutila!
nihor salatu baino nahiago du hila
harro egon liteke Maji neskatala,
espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatala, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

16. Baionako suprefeta

**Baionako suprefeta,
buruan duzu kasketa...
zuretzat itsusi baita
Euskal Herriko boneta!**

Jauna, zer duzun buruan,
ni nuzu jakin nahian...
Untsa zintazke etxian,
hobeki ospitalian...

Baionako suprefeta...

Baionan paseaturik
hemen nago zauriturik:
bi begiak itsuturik,
eta sudurra hautsirik!

Baionako suprefeta...

Oihala baituzu kentzen,
orai zaitut ezagutzen!
Bestek zaituzte laguntzen!
Zutaz eniz axolatzen!

Baionako suprefeta...

Ez dut erraite beharrik
zuk baduzunez hobenik...
Zurekin aski egonik,
itsu zirela diot nik!

Baionako suprefeta....

Enekin zira herabe...
ixiltzea duzu hobe!
Ni, bai, bi arroltze jabe,
eta, zu, hor, biak gabe!

Baionako suprefeta....

17. Nirekin

Emoixtaxux muxutxuek, maitie
Hartuixu guruxun, guztixe
Eroaixu bixotz, tristie
Zure bixotzarekin
Emostazu porrutxue, sorgiñe
Ahetetxu baten, berdiñe
Begitxu gorrixen, samiñe
Sendatuixu nirekin.

Oinak hotz gabien, berbak irratixen
Bero pixka bat gure neuke
Berbaixu bajutxu, eskue helduixu
Ez utzi laztanik eiteke.

Gero esnatzien lagaixu etzien
Zure marrubi usaintxue
Ta ez eixu pentsa ez dela erreza
Gauza politxek pentsatzie.

Emoixtaxux muxutxuek, maitie
Hartuixu guruxun, guztixe
Eroaixu bixotz, tristie
Zure bixotzarekin
Emostazu porrutxue, sorgiñe
Ahetetxu baten, berdiñe
Begitxu gorrixen, samiñe
Sendatuixu nirekin.

Gero esnatzien lagaixu etzien
Zure marrubi usaintxue
Ta ez eixu pentsa ez dela erreza
Gauza politxek pentsatzie.

Emoixtaxux muxutxuek, maitie
Hartuixu guruxun, guztixe
Eroaixu bixotz, tristie
Zure bixotzarekin
Emostazu porrutxue, sorgiñe
Ahetetxu baten, berdiñe
Begitxu gorrixen, Samiñe
Sendatuixu nirekin.

18. Uso xuria errazu

Uso xuria errazu nora
joaiten ziren zu. (Bis)
Nafarroako bortiak oro
elurrez beitiak dituzu,
gaurko zure ostatu ene
etxean baduzu. (Bis)

Ez nau izutzen elurrak, are
gutxiago gau ilunak. (Bis)
maitiagatik pasa nezazke
gauak eta egunak,
gauak eta egunak,
desertu eta oihanak. (Bis)

Usoa eder aidian,
ederrago oihanean. (Bis)
maitia, zure parerik ez da
Espainia guzian
ezta ere Frantzian,
iguzkiaren azpian. (Bis)

19. De Treville en azken hitzak

Herio latza hüllantzen ari hiz
Dolürik gabe orain nitarat
Othoitzen hait ixtant bat ützi nezak
Ene azken adiuen egitera.

**Hori bera da denen ixtoria,
Heriuak bardintzen handi txipiak,
Zeren ilüsiõne bat bera da
Lürren gaineko gure pasajia.**

Ene jaurregi pare gabekua
Hi altxatüz banian fiertate
Hitan igaran, denbora goxua
Hain llabür nükila ez nian uste.

Hori bera da denen ixtoria...

O Basabürü amiragarria
Bortüz eta mendiz ürgüratürik
Bostetan begixtatü zütiet
Ürgüllürekkin terraza huntatik.

Hori bera da denen ixtoria....

Adios arren Marie-Maidalena
Zük ingana nezazü lotarik
Ene ondotik baratzen direnez
Izan ez nadiala ahatzerik.

Hori bera da denen ixtoria....

20. Egia garestia dala

Heldu zen udaberria
kantuz hasi henaria.
Lagunak preso jausi direla
iritsi zait gaur berria. (Bis)

Urtu ziraden elurrak
narrotu otso-zakurrak
oraino ere minberaz daude
ene lagunen hezurak. (Bis)

Lainoak dire odoltu
gizon prestuak ixildu
behin berriro ere gure Sisifo
maldaz behera amildu. (Bis)

Kontzientziak urratu
Bakea dute saltu
lau horma artean egin dituzte
bizirikan enterratu. (Bis)

Indarra dela morala
ordena dela kabala
agertu dute gizonarentzat
egia garesti dala. (Bis)

21. Boneta ta txapela

Iragan egün batez egin diagü erri ;
Hortaz nahi deiziet eman zerbait berri :
Parisetik jin zaikü bidajez Phetiri,
Urthe bakotx fortuna eginik üdüri.

Agur, eta zertan hiz, Phetiri gaizua ?
Ene haur-denborako khantüko aizua
Iragan dük ordünko denbora gozua,
Eta hi aberastü, ezpehiz zozua !

Parisetik horra nük zien ikhustera,
Han untsa bizi gütük, adixkide Pierra,
Hiaurrek ikhusten dük egin diat afera,
Txapela ezarri diat бүрүtik behera.

Txapela badük bena arhin barnekua :
Nun ützi dük buneta Uxkal-herrikua ?
Txapel horrek eztereik edertzen kaskua :
Basta ederra gatik, asto dük astua.

Eztiat ez axolik laiduen batere !
Han ezagützen diat hanixko andere
Itxürari so-ginez aberats bai ere
Ezkuntüren ahal nük, ez erran deus ere.

Arren, badük ideia hola ezkuntzeko ?
Lagün franko badükek hortan segitzeko.
Ofizio bat balitz Parisen hartzeko,
Aberats izan gabe, auher bizitzeko

Ez nük ez hi bezala lanian akhitzen ;
Lan anplexagorik dük hirian agitzen.
Ene alde hasi nük Parisen bizitzen :
Arrüaren xokhuan oskien argitzen...

Ofizio ederra oski-argizale :
Har ezak emaztia ziraje-saltzaie.
Haurrak jinen zaitzie gose-bazkazale :
Utziren dük Parise ahal bezain zalhe.

Ni ja nahi nük egon buneta kaskuan,
Ene sor-lekhü maite Uxkal-herrikuan.
Ihurk e jakin-gabe zer düdan goguan,
Kobla zunbaiten huntzen süthondo-xokuan. (Bis)

22. Xarmegarria zira

Xarmegarria zira eder eta gazte
Ene bihotzak ez du zu baizikan maite.
Bertze zenbait bezala, ote zira libre?
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke.

Xuri gorria zira, arrosa bezala:
Profetak ere dira mintzo hola hola.
Araberen bazinu gorputza horrela,
Iduriko zinuen zeruko izarra.

Oi maitea, zatozki, plazer duzunean,
Nehork ikusi gabe, ilun nabarrean;
Lagun bat badukezu jaoiteko bidean:
Hark ezarriren zaitu trankil bihotzean.

Plazer eginen duzu, ixiltzen bazira,
Haur inorantak hola tronpatzen baitira.
Ez da enetzat iña holako segida
Bertzalde zure baitan ez naiteke fida!

Adios beraz orai, ene arraroa,
Hori dela medio herritik banoa;
Bihotza triste eta kexuan gogoa,
Beti jarraikiren zait zure amodioa. (Bis)

23. Neure andrea

Neure andrea andre ona da
Auzoan hala diote; (bis)

Erositako prezioetan,
Prezio erositakoetan,
Erositako prezioetan,
Pozikan salduko neuke.

Neure andrea goiz jeikitzen da
Erromeria denean; (bis)

Buruko mina egiten zaio,
Egiten zaio buruko mina
Buruko mina egiten zaio,
Lana manatzen zaionean.

Neure andreak atorra zarra,
Berea balu ezer ez; (bis)

Zazpi astean soinean dauka,
Soinean dauka zazpi astean,
Zazpi astean soinean dauka
Aldatutzeko alferrez.

24. Itsasoa laino dago

Itsasoa laño dago
Baionako barraraino:
Nik zu zaitut maiteago
Txoriak bere umiak baino!

Aita gutaz oroit dago
Lainopean gaueraino!
Nik zu zaitut maiteago
Arraintxoek ura baino!

Afaria suan dago
Bero-beroa sarridino:
Nik zu zaitut maiteago
Egur onak sua baino!

Izar xuriz mila dago
Iparretik hegoraino:
Nik zu zaitut maiteago
Ilargiak gaua baino.

Lo egizu, egizu lo
Deskantsu bihar artio:
Nik zu zaitut maiteago
Gau beltzean loa baino!

Orai haurra hor lo dago:
Lo egizu, aingeruño
Nik zu zaitut maiteago
Zure aitak nihaur baino. (Bis)

25. Badira hiru aste

Iskin hontatik idazten dizut
Azken aldian bezala
Egia da bai sasoi honetan
Hotza egiten duela

**Neska gazte bat ezagutu dut
Hiru aste badirela
Esango nuke bere begiek
Erraz sorgindu nautela. (Bis)**

Azken bidai hau ez duzu izan
Etxe ondotik ihesa
Nigandik hurrun aurkitu arren
Hara itzultzeko ametsa

**Zuekin beti oroitzen banaiz
Ahaztu naizenik ez pentsa
Sentimenduak esaten baina
Ez da hain gauza erreza. (Bis)**

Orain goizean goizik hartzen dut
Mendebalderako tren
Harrizko zoru ahaztuetan
Biderik eta zaharrena

**Bizitzak sarri erakusten du
Badena eta ez dena
Inoiz latz hartu banindu ere
Gaur gozo hartu nauena. (Bis)**

Lantzean baina, egun luzeetan
Bihotza egoten da triste
Agindutako promesa hura
Ezin kunplidu nezake

**"Loriak udan" kantatzen baitut
Inoiz gutxitan ez uste
Letrak ez ditut oraindik ahaztu
Akordatzen naiz hainbeste. (Bis)**

26. Joseba Elozegi

Lotuz aire zaharrari dugun kanta pertsu berri
Joseba Elozegiri (3) gizon miresgarriari

Ene haur eta ahaide, bai ta euskaldun haurride
Zonbat zaituztetan maite (3), nehoiz nehork ez dakike.

Adios mendi ederrak, oihan ta itsas bazterrak
Adios Donostiarrak (3), jauntziren ditut su-garrak.

Arras trixte da bizia, askatasunik gabea
Herriarentzat hiltzia (3), nuen nik neure lehia.

Donostiko medikiak, erien sendatzaileak
Utz otoi ene zauriak (3), dagoden orroitgarriak.

Ni hiltzen baniz huntarik, ez otoi egin nigarrik
Ez baitut nigar beharrik (3), ez badut jarraikilerik (bis)

27. Insumisioarena

Postari zintzo horrek zer dakar karpetan?
Amodio gutunik etzegok giretan
Militarren ohar bat? bitxia benetan
Bidali duenari eramaioak bueltan.

Natural sentitzen dut egiten dudana
Eta natural egin sentitzen dudana.
Insumiso egin naiz horitxe da dana
Ahaztu gabe guztioi muxu handi bana.

Nigarrez ari zara ama maite hori
Ba omen nuen beste aukera ugari.
Nola obedituko diot eroari
Ez badizut jadanik obeditzen zuri?

Natural sentitzen dut egiten dudana...

Ene kolega maite beldurtia haiz hi
Aholkuak ematen ez hadila hasi
Kartzelara noala diostak itsusi
Etor hadi bisitan txorizo ta guzti.

Natural sentitzen dut egiten dudana...

Funtzionari zoli ene kartzelero
Juezen sententzia txikien borrero
Ezin nauzu hain errez bihurtu numero
Kantari esnatzen naiz goizero goizero.

Natural sentitzen dut egiten dudana...

28. Egun da Santi Mamiña

**Egun da Santi Mamina
benetan egun samina.
Goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure arima**

Esanen dizut egia
hau ez da usategia;
erroi artean izan nintzaden
benetan ausategia.

Egun da Santi Mamiña...

Itsas aldean izarra,
hari begira lizarra.
euskera salbo ikusi arte
ez dut kenduko bizarra.

Egun da Santi Mamiña...

Kantatu zuen oilarrak,
argitzen dira belarrak
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

Egun da Santi Mamiña...

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskal Herriak diotza.
Solomu luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.

Egun da Santi Mamina...

Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak.
Esan noiz garen izanen gure
etorkizunen jabeak.

Egun da Santi Mamina...

29. Ni naiz

Ni naiz, erreka zikinen iturri garbiak
aurkitu nahi dituen poeta tristea.
Ni naiz, kaleetan zehar neguko eguzkitan
lanera dijoan gizon bakartia.
Ni naiz, lorerik gabe gelditzen ari den
ardaska lehorra,
Ni naiz, pasio zahar guztiak kiskali nahi dituen
bihotz iheskorra.

Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordeaz,
nora ote dijoan denbora aldakorrak **daraman bidea. (bis)**

Ni naiz, burrukaren erdian ilunpetan etsita
amur ematen duen pizti beldurtia.
Ni naiz ezerezetik ihes munduaren erdian
ezin aurkitutako amets urrutia.
Ni naiz irrifar bakoitzean
gaztetasun hondarrak galtzen dituen,
Ni naiz itsasoko haizeak
gogor astintzen dituen laiñoen negarra.

Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordeaz,
nora ote dijoan denbora aldakorrak **daraman bidea. (bis)**

Ni naiz, txori hegalaria bat lurtasun zabarrari
Etsipenez loturik dadukan katea.
Ni naiz, beste asko bezala neguko eguzkitan
Hotzak hiltzen dagoen gizon bakartia.
Ni naiz, historik gabe gelditzen ari den
Araska legorra.
Ni naiz, pasio zahar guztiak kixkali nahi duten
Bihotz iheskorra.

Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordeaz,
nora ote dijoan denbora aldakorrak **daraman bidea, daraman bidea. (Bis)**

30. Lau andren besta

Herriko bestak bigarreanean,
Berek dakiten xoko batean,
Lau andre, bat alharguna,
Hiru mutxurdin jarriak itzalean
Harri zabal bat belaunen gainean,
Hari dire, hari dire, trukean.

Zer duten nuke nik jakin nahi
Pitxarrarekin bertze jaun hori,
Zorroa du biribila, moko meharra,
Tente xutik egoki,
Xahato bat ez ote den nago ni,
Hanpatua, hanpatua ederki?

Jesus ! Oraino zer dut ikusten?
Zer hegalpean dute gordetzen?
Egoitza goxo hortarik, halto burua,
Xahatoaz trufatzen,
Bihotzez azkarragoa zeren zen,
Khuiatxoa, khuiatxoa ari zen.

Besta delakotz egun herrian,
Apaindu dire handi handian,
Ederki gazteen gisa panpiñatuak
Ez patsada ttikian,
Bihotz onez partidaren erdian,
Irriz daude, irriz daude lorian.

Handik ximiko hemendik irri,
Haurrak bezala jostetan ari,
Artean amodiozko begi kolpe bat
Hegalpean denari
Hitz bat erran gogo diote sarri
Beharrira, beharrira, khuiari.

Besta bigarren egun berean,
Lau gatu zahar, anjelusean,
Bat mainguz, hiru saltoka, sorginak puyes !
Zohatzila bidean,
Ikusten ditut nik amets batean,
Akhelarre, akhelarre gainean.

31. Arbola gainean

Arbola gainean xoria da kantatzen
Kantatzen da eta bazterrak inarrausten
Inarrausi eta hostoa da erortzen
Euskal bihotza da bilaiz egoiten
Bilaizi ondoan han dira errabian
Xiloka beltzian handik elki nahian
Handik elki eta kantatzera abian
Lagun zonbait bidian ikusiko agian. (Bis)

La, la, la, la ...

Goiz argi eder bat beti jeikitzen nunbait
Nunbait jeiki eta zorionean zonbait
Bizi hobeago denek dukete gogo
Bainan bakarrik ezin egin asmo.
Haur baten sortzeko sofritze beharrezko
Bizi hobetzeko legeen bihurtzeko
Nor da abiatzen? lagun zonbaiten biltzen
Herriaren salbatzen herioari kentzen. (Bis)

La, la, la, la ...

Gaur Euskal Herrian zuhaina da landatzen
Landatzen da eta gero fruitu ekartzen
Fruitu ekar eta haizua da kexatzen
Iraultzalaria madarikatzen...
Jar giten ildoan igeri izerdian
Izerdian eta lepo zainak hegian
Besoez eta botzez, hortzez eta haginez
Lagun bat zorionez ikusiko dugunez. (Bis)

La, la, la, la ...

32. Kantuz

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi
Kantuz igortzen ditut nik penak ihesi
Kantuz izan dudaño zerbait irabazi
Kantuz gostura ditut guziak iretsi
Kantuz ez duda beraz hilteza merezi?

Kantuz iragan ditut Gau eta egunak
Kantuz ekarri ditut griñak eta lanak
Kantuz biltzen nituen aldeko lagunak
Kantuz eman dauzate obra gabe famak
Kantuz hartuko Nauia zeruko jaun honak!

Kantuz eman izan dut zonbaiten berriak
Kantuz atseginekin erranez egiak
Kantuz egin baititut usu afruntuia
Kantuz aitortzen ditut nere bekatuak
Kantuz eginen ditut nik penitentziak!

Kantuz eginez geroz munduian sortzia
Kantuz egin behar dut ontsalaz hiltzia
Kantuz emainten badaut jainkoak grazia
Kantuz idekiko daut San Pierrek atia
Kantuz egin dezadan zeruan sartzia!

Kantuz ehorts nezaten hintzen naizenian
Kantuz ene lagunek harturik airian
Kantuz ariko zaizkit lurrean sartzian
Kantu frango utziko diote munduian
Kantuz has ditzen behin nitzaz oroitzian

33. Xalbadorren Herriotza

Adiskide bat bazen orotan bihotz bera,
Poesiaren hegoek sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari bakardadez josia,
Hitzen lihoa iruten bere barnean irauten
oiñazez ikasia, ikasia.

**Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
Mendi hegaletan gora
Oroitzapen den gerora
Ihesetan joan hintzana. (bis)**

Hesia urraturik libratu huen kanta
Lotura guztietatik gorputzaren mugetatik
aske senditu nahirik.

Azken hatsa huela bertsorik sakonena.
Iñoiz esan ezin diren estalitako egien
oihurik bortitzena, bortitzena.

**Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
Mendi hegaletan gora
Oroitzapen den gerora
Ihesetan joan hintzana. (bis)**

34. Atharratzeko gazteluko kantua

Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratü
Atharratzeko Jaunak bata dü galdatü;
Üken du arrapostü, ez direla hüntün
Hüntürik direnian batto ükenen dü

Portaliaa juan zite, ahizpa maitia,
Ingoiti horra düzü Atarratzeko Jauna,
Otoi erran izozü ni eri nizala,
Zazpi egun hoietan ohian nizala.

Klara, zoaza orai salako leihora,
Ipar-ala egua denez jakitera,
Iparra baldin bada goraintzi Salari,
Ene korpitzaren txerka jin dadila sarri.

Ama, juanen gira oro elkarrekin,
Etixerat jinen zira xangri handireki,
Bihotza kargatürik, begiak bustirik,
Eta zure alaba thunban ehortzirik. (Berriz)

Ama, saldu nauzü biga bat bezala,
Bai eta desterratü, oi Española,
Aita bizi üken banü, ama zü bezala
Enündüzün ezküdüren Atharratzeko salala. (Berriz)

Enündüzün ezküdüren Atharratzeko salala. (Berriz)
Aita bizi üken banü, ama zü bezala

35. Oihan beltzian

**Oihan beltzian xoriak kantian
udaberria jin denian
lumak ez dituzte galdu negian
dira ohantzian.**

Nungo oihanetik kantuz xoriak
entzunarazi ote dauku deia
nundik oiharzunez da xoria
bai, abertzalia.

Zer kantari nori hari xori hori?

Oihan beltzian xoriak kantian...

Udaberria du bere semia
eriotza beltzaren etsaia
bizirik du begiratu nahia
bai Eskual-Herria.

Zer kantari nori hari xori hori?

Oihan beltzian xoriak kantian...

Zenbat izerdi ta odol xoriak
ez galduak bai baliatuak
zonbat luma ez ditu xoriak
ohantzeratuak...

Zer kantari nori hari xori hori?

Oihan beltzian xoriak kantian...

Ohantzia dauka gure herria
luma pean latza du bizia
hatsa ere du ezaugarria
da libertatia...

Zer kantari nori hari xori hori?

Oihan beltzian xoriak kantian...

36. Urtxintxak

Urtxintxak oihanian jauzika,
Aldaxkatik aldaxkara...
"Zuk erraidazu, ama zendako
Ez diren erortzen lurrerat ?.."

**Nik ere nahi nuke izan
Urtxintxa bezala !
Hain gora, hain trebe,
Izaiteko libre ! (Bis)**

Urtxintxak oihanian zintzilik,
Buruz behera buztanetik !...
"Zuk erraidazu, ama, zendako
Ez duten buruko minik ?.."

Nik ere...(Bis)

Urtxintxak oihanian
Karruxkaz,
Neguko bildu intzaurrekin...
"Zuk erraidazu, ama, zendako
Ez dezakedan egin berdin?.."

"Nik ere...(Bis)

37. Ez ginuke

Ez ginuke beste pena haundi beharrik ez (bis)

Sortuz geroztik adinerat heldu gabe
Bizi gaztea ez bere indarren jabe

Ez ginuke beste pena haundi beharrik ez (bis)

Hogoi urtetan sekulako denak usten,
Hogoi mendetan gizona berari jotzen

Ez ginuke beste pena haundi beharrik ez (bis)

Zertako beraz guduka itsuan jarri
Orduan dugu begira beharko zuri.

Ez ginuke beste pena haundi beharrik ez (bis)

38. Martxa baten lehen notak

Eguzkiak urtzen du goian
gailurretako elurra
uharka da jausten ibarrera
geldigaitza den oldarra.

Gure baitan datza eguzkia
iluna eta izotza
urratu dezakeen argia
urtuko duen bihotza.

Bihotza bezain bero zabalik
besoak eta eskuak
gorririk ikus dezagun egia
argiz beterik burua.

Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko
bat iñon loturik deinoez
gara libre izango.

Bakoitzak urraturik berea
denon artean geurea
etengabe gabiltz' zabaltzen
gizatasunari bidea.

Iñon ez iñor menpekorikan
nor bere buruan jabe
herri guztio bat eginikan
ez gabiltz' gerorik gabe.

Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko
bat iñon loturik deino
ez gara libre izango.

Eguzkiak urtzen du goian
gailurretako elurra
uharka da jausten ibarrera
geldigaitza den oldarra.

39. Eperra

Eperrak badituzü bere bi hegalak
Bai eta bürün gainin kokarda eijer bat
Zük ere balinbazünü gaztetarsün eijer bat
Neskatilen gogatzeko bilo holli pollit bat (bis)

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe
Gaiaz ebiltia ez üken herabe
Egünaz ebiltia desohore leike
Txoriak ere oro haier soz dirade (bis)

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti
Eia! atzamanen nianez lili eijer hori
Azkenian atzaman düt oi! bena tristeki
Lümarik eijerrena beitzaiio erori (bis)

40. Jaun baruak

Jaun Baruak aspaldin
Xederak hedatü zütin, (Bis)
Txori eijer bat hatzaman dizü
Paubeko seroren komentin,(Bis)
Orain harekin biziren düzü
Aspaldian gogun beitzin. (Bis)

Xedera baliz halako
Merkatietan saltzeko,(bis)
Xiberuako aittunen semek
Eros litzazkie oro,(Bis)
Halako txori eijerto
Zunbaiten hatzamaiteko.(Bis)

Igaran apirilaren bürían,
Armadaren erdian,(Bis)
Züntüdan bihotzian,
Armak oro eskian;(Bis)
Present espiritian,
Manka besuen artian.(Bis)

Jaun maite banaizü,
Erraiten düzü bezala,(Bis)
Kita ezazü, kita ezazü
Erregeren zerbütüa(Bis)
Eta maita herria,
üken dezadan plazera.(Bis)

41. Itsasoan urak haundi dire

Zazpi senideko famili batetan,
arotza zen gure aita,
gure herriko_alkate ez izan arren,
lan egiten zuena.

**Itsasoan urak haundi dire
murgildu nahi dutenentzat;
gure herriko lanak haundi dire
astun dire, gogor dire
zaturik gaudenentzat (Bis).**

Markatzen ari diren bide nabarra,
Ez da izango guretzat,
Lehenago sokari ezarririk datorren,
oztopo bat besterik.

**Itsasoan urak haundi dire
murgildu nahi dutenentzat;
gure herriko lanak haundi dire
astun dire, gogor dire
zaturik gaudenentzat. (Bis)**

Hainbeste mendetako
Gure morroitzak
baditu mila tankera
eta zuhur aukeratzen ez badugu
bertan galduko gara.

**Itsasoan urak haundi dire
murgildu nahi dutenentzat;
gure herriko lanak haundi dire
astun dire, gogor dire
zaturik gaudenentzat. (Bis)**

42. Lagun etor gurekin

Batez, mendi eta oihanetan
Pentze eta alorretan - bizi
Nahi dugu gure etxetan.
Batez, laborarien auzia
Ezin da irabazian - nahi,
Norbaitekin ta nor ez jakin

Biez, langile guzien mina
Na(g)usientzat gaixtagina - Senda,
Daitekea gure indarrez.
Biez, nun ez den ari gogorka
Ezin da egin borroka - nahi,
Norbaitekin ta nor ez jakin.

Lagun etor gurekin
Denek elgarrekin badugu zer egin.
Gu ez gira lotsatzen
Etsaia nun hazten, han da gudukatzen.
Gure odolez ta ontasunez,
Gure izaitzez dirade gosez,
Elkartasunez erakuts hortzak,
Elgarri josiz buru gorputzak.

Hiruez, besteen bizkar bizi dena
Utzirik bestalde lana - mozten,
Ahal dira ari egalak.
Hiruez, diruaren lege latza
Ezin da nihundik kasa - nahi,
Norbaitekin ta nor ez jakin.

Lauez, libertateko bidean
Bide luze ta hertsian - tinka,
Eta gogor elkar atxiki.
Lauez, itotzen ari den haurra,
Ezin da ekar bizira - nahi,
Norbaitekin ta nor ez jakin

Lagun etor gurekin
Denek elgarrekin badugu zer egin.
Gu ez gira lotsatzen
Etsaia nun hazten, han da gudukatzen.
Gure odolez ta ontasunez,
Gure izaitzez dirade gosez,
Elkartasunez erakuts hortzak,
Elgarri josiz buru gorputzak.

Bostez, ardiz beztu den otsoa
Barnea ustelezkoa - argi,
Ikus nor den gure Ondoan.
Bostez, barkua zuzen eraman,
Haizeari gogor eman - nahi,
Norbaitekin ta nor ez jakin.

Lagun etor gurekin
Denek elgarrekin badugu zer egin.
Gu ez gira lotsatzen
Etsaia nun hazten, han da gudukatzen.
Gure odolez ta ontasunez,
Gure izaitzez dirade gosez,
Elkartasunez erakuts hortzak,
Elgarri josiz buru gorputzak.

43. Euskal Herrian euskaraz

Euskal Herrian euskaraz
Nahi dugu hitz eta jolas
Lan eta bizi euskaraz eta
Hortara goaz,
Bada garaia noizbait dezagun
Guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
Gure hizkuntzak har dezan arnas,
Bada garaia noizbait dezagun
Guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
Hitz egiterik ez bada
Bota dezagun demokrazia
Zerri askara
Geure arima hiltzen uzteko
Bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
Nola irtengo naizen plazara,
Geure arima hiltzen uzteko
Bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
Irabazteko eguna
Pazientzia erre aurretik
Behar duguna,
Ez al dakizu euskara dela
Euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
Hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
Euskaldun egiten gaituena?

44. Tupindegiko Roxali

Tupindegiko Roxali, tantilulilu tiluli
Tupindegiko Roxali, Paristik zaigun itzuli.
Dena fazoin dena takoin arrunt gaskoin.
Tupindegiko Roxali Paristik zaigu itzuli.

Andere handi iduri, Tantiruriru tiruri
Andere handi iduri, ez dio "bonjour" deneri
Ezpain gorri, ile hori, begi xuri
Andere handi iduri, ez dio "bonjour" deneri

Karrikan xut-xut ibilki, tantikukiku tikuki
karrikan xut-xut ibilki, ai, espantuka badaki
Luze-luze, mehe-mehe, ai, tetele
Karrikan xut-xut ibilki, ai espantuka badaki

Hari eskuara, ez aski, tantikukiku kikuki
Hari eskuara, ez aski, baina frantsesa baleki
Kixkun kaxkun je suis gasconne, pas eskualdun.
hari eskuara, ez aski, baina frantsesa baleki

Parisko lili, Roxali, Tantilulilu tiluli
Parisko lili, Roxali, bai frantximent, bai tres jolie
Utzan modak, utzan tintak, ai, potreta!
Parisko lili, tiluli, hago eskualdun, Roxali.

45. Sautrela

O Euskara lauda ezak Garaziko herria,
zeren handik hartu baituk behar huen grazia.
Lehenago hi baihintzen hizkuntzarik azkena,
orain berriz izanen haiz guztietan lehena.

Eta lelori bai lelo leloa zarai leloa! (bis)
Euskara da kanpora eta goazen denok
dantzara.

Euskaldunak edo nondik preziatu ziraden,
baina haien mintzaeraz denak ziren burlatzen,
inongo liburuetan eskribitzen ez baitzen;
orain ikasiko dute nola gauza ona zen.

Eta lelori bai lelo...

Euskalduna den guztiak burua altza beza,
gorenean ikusiko baitu bere hizkuntza ederra.
Printze eta jaun guztiek hura eskatzen dute,
paperetan ikusita ikasi behar dute.

Eta lelori bai lelo...

Gogo hori konplitu du Garaziko gizonak
eta haren adiskide Bordelen dagoenak.
Lehen inprimatzailea euskararen hura da;
euskaldunak eskerturik aurkitu behar gara.

Eta lelori bai lelo...

46. Ekaitza

Uztaillaren emeretzia
egun beltz ta pozoitsua
ezagutzen zan bazatorrela
ekaitzakin erasua;
berialaxe nabarmendu zan
tximista gaixtoan sua
odol gorrituz gainbera azi zan
ujoldero Bidasua
amaika amaren seme galdu da,
ai, seme gizagaixua!

Atzera eginda galdua zegon
gure erri doatsua
beragatikan burua gora
eman genduen pausua;
egazki zarrak bonba goitikan
nonaitik kañonazua
ekaitzak kazkabarra bezala
bazatorren balazua
amaika amak gaur esaten du:
ai, seme gizagaixua!

Ez izan arren guk Españiyan
bizitza ain erosua
askatasuna maite degunak
gerez izan odoltsua;
aberatsaren meriyoz dator
emengo naste osua
oinpean beti iruki nayak
langille edo beartsua
amaika amak negarrez diyo:
ai, seme gizagaixua!

Gurdi burnizko gudako egiñak
diaurrun itxuratsua
aurreratzen zan nola sartzen dan
ardi tartean otsua
pinpi ta panpa garbitzen zuan
gure inguru osua
zerekin gogor egiñik guk ez
naiz izan biyotz jasua
amaika amari gogotzen zaio:
ai, seme gizagaixua!

Iretsi nairik nola enarak
iretsitzen dun eltxua
berrogeita bost egun onela
ura bizitza pisua
Irungo erri zoragarria
leyal eta mamitsua
beartsuaren laguntzallia
zuzena eta zintzua
amaika amari aztuko etzaio:
ai, seme gizagaixua!

Falangistakin reketetarrak,
zer gizarte indartsua
beren laguntza zeukatelako
militar gaizto faltsua!
Alkarrengana bildu dirade
bekaizkor ta xitaltsua
aurrera guazen alkaturikan
anai prestu bulartsua,
Ama Euskadik lagunduko du:
aurrera seme gaixua! (Bis)

47. Gazteri berria

Aita, zer egin duzu gure lur maitea?
Kanpokoari saldu, oi dohakabea!
Arrotzez betea da Euskadi guzia,
Eskualduna etxean ez dago nausia.

**Gu gira Euskadiko gazteri berria,
Euskadi bakarra da gure aberria. (Bis)**

Aita, zer egin duzu euskara maitea?
Erderan hazi duzu oi zure semea.
Ontasun ederrena aita batek galtzea.
Biotzean sartua dugu ahalgea.

**Gu gira Euskadiko gazteri berria,
Euskadi bakarra da gure aberria. (Bis)**

Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia,
bainan euskal semea da gure anaia.
Hemen dela España, han dela Frantzia,
mugaren bi aldetan da Euskal-Herria.

**Gu gira Euskadiko gazteri berria,
Euskadi bakarra da gure aberria. (Bis)**

Jaungoikoak emana hor dugu herria,
bere semek hiltzera zergatik utzia...
Bat egin behar dugu Euskadi guzia,
bildu gaiten, anaiak, gure da bizia!

**Gu gira Euskadiko gazteri berria,
Euskadi bakarra da gure aberria. (Bis)**

48. Lertsunak

**Lertsuna lerro lerro
Zeruan gora, gora
Hegoaldera behera
Badoa lerro lerro. (Bis)**

Negua hor da, hor da
Kanpoan elur hotza
Su ondo bero, bero
Etxean bada, bada.

**Lertsuna lerro lerro
Zeruan gora, gora
Hegoaldera behera
Badoa lerro lerro.**

**Lertsuna lerro lerro
Zeruan gora, gora
Iparraldera gora
badator lerro lerro**

Lertsuna lerro, lerro
Jinen da gero, gero
Ekarriz goxo, goxo
Eguzki bero, bero.

**Lertsuna lerro lerro
Zeruan gora, gora
Iparraldera gora
badator lerro lerro. (Bis)**

49. Bautista Basterretxe

Bautista Basterretxe
Mutiko pijua
Neri gurdi-ardatza
Neri gurdi-ardatza
Ostuta dijua.
Beltzak eta txuriak
ikusiko (d)ituzu,
Neri gurdi-ardatza
Neri gurdi-ardatza
Emate ez baidazu.

Nere idi-pareak
Dauzka zintzarriak,
Lepotikan zintzilik,
Lepotikan zintzilik
Zildaiña jarriak.
Gainera uztarriak
Ta kopetekoak,
Ontz urre gorri za(ha)rrez
Erositakoak.

Buru gogorak badu
Berekin kaltea
Ez dedan gauza nola,
Ez dedan gauza nola
Nahi dezu ematea?
Zentzuak galdurikan
Arkitzen zerade,
Bestela behintzat horla,
Beztela behintzat horla
Ariko ez ziñake.

Gezur ta abar zabilta,
Bautista tranpean.
Zu bezin gezurtirik,
zu bezin gezurtirik
ez da Euzkal Herrian.
Zure berri dakite
inguruko denak,
gordetzen dituzula
gordetzen dituzula
gauza besterenak."

50. Partitzeko tenoria

Orain düzü ene maitea
Partitzeko Tenorea (Bis)
Asperena bihotzean
Eta nigarra Begian
Tristüratan bizi behar dü
Ene denbora guzian (Bis)

Orain düzü ene maitea
Partitzeko Tenorea (Bis)
Ez zütüt nahi kitatü
Sobera zütüt maitatü
Lili ejerra so egin dazü,
Ene bihotza zürria düzü,
Eta zuria enia düzü.